

“Denok elkarrekin, baina argazkirako baino ez”

Horrela laburbil dezakegu behean sinatu dugun gizarte-eragileen eta ekologisten egonezina, zeintzuk parte hartzen dugun Arabako Hiri Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako 2017-2030 Plan berrian.

Arabako Foru Aldundiak proposatu duen metodologiaren arabera, Planaren parte hartzeko prozesuak 4 fase kontzeptual-metodologiko zehazten ditu eta iraupen jakin bat ezartzen dio bakoitzari:

1. Diagnostikoa (15-12-2016 / 15-03-2017)
2. Alternatibak (15-02-2017 / 15-04-2017)
3. Planaren lehenengo zirriborroa (01-03-2017 / 15-05-2017)
4. Planari aldaketak, harik eta behin betiko onespena lortu arte (15-05-2017 / 13-10-2017)

Planak berak epeak ere ematen ditu dokumentazioa aurkezteko. Kronograma jarraituz, data hauetarako, Planaren aurrerakin bat aurkeztu behar da, Arabako Foru Aldundian alderdi politikoei esan zitzaizen bezala.

Erakunde sozial eta ekologistek - alderdi interesdun bezala definituak - Diagnostiko fasean parte-hartzeko baino ez dugu jaso gonbidapena. Hilak zenbat dituen ikusita eta zirriborroaren aurkezpenaren berri emanda, argi eta garbi dago diagnostiko eta alternatiba faseekin jarraitzeko konpromesua ez dela bete.

Uste dugu benetako parte-hartzea murriztu dela, alderdi interesdunena ez ezik, herritar guztiona, zeren eta ez baitugu aukerarik izan aurkezteko, eztabaidatzeko ... egon litezkeen alternatibak.

“Informaziorik gabe, ez dago eztabaidarik; eztabaidarik gabe, ez dago parte-hartzerik” esaerarekin adierazi nahi dugu Plan hau - ekonomia zirkularrak eta aldaketa klimatikoak ekarri dizkigun helburuen aurrean ausarta eta asmo handikoa - sortzen dela alderdi interesdunak parte-hartzeko aukerarik gabe, eta guk, alderdi interesdunok, urteak daramatzagu lanean gure lurraldeko hondakinen kudeaketa hobetu nahian.

Horregatik guztiagatik, parte-hartzeko prozesuari uko egin behar izan diogu, ez baitugu erantzunkide izan nahi erabaki batzuetan non ezin izan dugun inolaz ere adostu. Penagarria da Nafarroa - hain hurre daukagun lurraldea - ez izatea gure Administrazioarako adostasunerako eta parte-hartzerako eredu. Aukera handi bat galdu izanaren sentsazioarekin geratzen gara; hala eta guztiz ere, lanean jarraituko dugu beste batzuk sortuko diren esperantzarekin.

Eragile sozial eta ekologistak:

Gaden	Asociación Naturalista Amalur-Ekialdea
Ekologistak martxan	Hontza Natura elkarte
Instituto Alavés de la Naturaleza (IAN)	Eguzki talde ekologista
Gasteiz Zero Zabor	Asociación Gaia

Gasteiz, 2017ko ekainaren 23a.